

# Zapalduen hiztegia

J aio bezain pronto hasten da kontua. Izena jartzen digute eta izen horrekin identifikatu behar dugula erakusten digute. Gainerako berba guztiak bezala, izenak ez dira adierazle neutroak, bakoitzak badu bere lurrina eta bere mundu ikuskera. Bilgune Feministak eta Emagin elkarteak kaleratu berri duten *Izena eta izana ezbaian: gida praktikoa* liburuxkak errealitate hori agerian jarri du. Izen askok genero-marka nabarmena dute, pertsona izan-go denaren nolabaiteko aurreikuspen edo proiektzioa, egokituko zaion rola.

Bide beretik doa abizenarekin, alegia, deitura soziala izango den horrekin, gertatzen dena. Aitarena lehenbizi jartzearen alde egiten dute bikote heterosexualek gehienek. Ikuspegi erabat androzentrista nagusitzen da: arrunta aitarena lehenengo joatea da, hori da norma, amarena jartzea gizonetzkoari “berez” dagokion eskubidea kentzea da. Hor hasten da boterearen, estatusaren eta prestigioaren eraikuntza sinbolikoa. Familiaren nukleoa aita dela eta mantendu beharreko ondarea gizonengandik datorkigula irudikatzen da.

Gerora, hitz egiten irakasten digute eta boterearen hizkera gure diskurtsoaren jabe egiten da. Konturatu gabe, berba egiten dugun aldiro aurretik ezarritako posizio politiko, ideologiko eta morala erreproduzitzen dugu. Edozein eremuko diskurtsoetan topa daitezke horren zantzuak, baita jardun politikoan eta ekonomikoan ere.

Ciudadanos izeneko alderdia sortu dute berriki, izenean bertan populazioaren –eta hortaz boto-emaile potentzialen– erdia kanpoan uzten duen alderdia. Hemen eta orain sortu da. Hemen? Non? Hemen, Espainian? Denboran urte gutxi batzuk atzera eginez gero, horrelako esaldia erabiltzen zuenaren jite ideologikoa agerian



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Denboran urte gutxi batzuk atzera eginez gero, horrelako esaldia erabiltzen zuenaren jite ideologikoa agerian geratzen zen: espainolista, konstituzionalista, unionista... edo “demokrata”?

Gaur egun, ordea, erlaxazio terminologikoa sumatzen dut inguruan, ez da arraroa lelo abertzalea soinean daraman ikasleari tankera horretako esaldi bat entzutea: “Hemen, Espainian...”

geratzen zen: espainolista, konstituzionalista, unionista... edo “demokrata”? Gaur egun, ordea, erlaxazio terminologikoa sumatzen dut inguruan, ez da arraroa lelo abertzalea soinean daraman ikasleari tankera horretako esaldi bat entzutea: “Hemen, Espainian...”.

Nolanahi ere, akritikotasunak alor ekonomikoko hitzekin jotzen du goia.

Zenbat eta botere guneetatik hurbilago, orduan eta hitz tekniko eta ulergaitzagoak erabiltzen dira. Bada, horrek ez du galarazten gure egunerokoan txertatzea, barruan daramatenari erreparatu gabe. Milaka adibide jar genitzake, eufemismogintza eta hizkeraren perbertsioa etengabeak baitira jardun ekonomiko eta enpresarialean, baina horra gaurkotasun handia duen bat: zoritxarrez ia egunero entzun edo irakurtzen dugu han edo hemengo enpresan “lan erregulazioko espedientean” edo “ERE”an daudela, ohikoa den gaztelaniazko akronimoa baliatuta (zapalkuntzak baditu milaka aurpegi). Zergatik erabiltzen dugu patronala zuritzeko sortutako eufemismo hori?

Ohartu gabe hauxe onartzen ari gara: enpresa gaizki doa, hortaz, egoera erregulatu behar da. Benetan al doa gaizki enpresa? Eta gaizki badoa ere, hori “lana erregulatu” al da? Zergatik ez diegu “kaleratze” deitzen? Eta zergatik patronala eta ez matronala? Gure hizkerak errealitatea egituratzen eta sortzen duela onartzen badugu, hitz egiteak ariketa autokontzientea eskatzen du. Zer diogu hitz egiten dugunean? Nahi duguna edo nahi dutena? Nik neuk, behintzat, eskertuko nuke zapalduen hiztegi bat osatuko bagenu, boterearen diskurtso hegemonikoetatik at bizi eta pentsatzeko aukera emango digun hiztegia. Burujabetza lexiko eta semantikoa da bide bakarra. ■